

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: Kultur sorkuntza dinamizatzeko dirulaguntzak.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea Beasaingo herritarrei kultur sorkuntzako proiektuak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura-baldintzak arautzea da.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Laguntza hauek pertsona fisikoentzat dira, baldin eta:

1. 18 urtetik gorakoak badira.
2. Azken bi urteetan etengabe Beasainen erroldatuta badaude, erreferentzia gisa 2021/01/01 hartuta.
3. Kultura-arloan proiektuak edo jarduerak garatzen dituztenak edo hasi nahi dutenak badira.

Interesdunek gehienez ere 3. Oinarrian adierazitako diruz lagun daitezkeen proiektuetako birentzat aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskaera. **DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROIEKTUAK/JARDUERAK**

Eskatzaile berak diruz lagundu daitezkeen proiektu bat baino gehiago aurkezten badu, proiektu bakar baterako bakarrik emango da laguntza. Hori, puntu gehien lortzen dituen izango da, 10. puntuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko kreditu erabilgarria 15.000 €-koa izango da.

Aurkeztutako aurrekontuaren %75a lagunduko da gehienez eta, gehienez ere, 3.000€ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak.

Eman beharreko dirulaguntzen ebazpena alkatetzaren eskumena izango da, Onarpen eta Balorazio Batzordeak igorritako txostena kontuan hartuta.

Jaso ahala ebatziko dira dirulaguntzak, eskaera jaso eta bi hilabeteko epean gutxi gora behera.

Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 50 diru-laguntza emateko ebazpena onartzen denean, eta gainerakoa ekimena justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean.

Emandako diru-laguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Organo eskudunak onartu ondoren, oinarriak DNBrá bidaliko dira eta GAOn argitaratu ondoren, eskabideak aurkezteko epeari hasiera emango zaio, eta **2023ko irailaren 10ean** amaituko da.

-Modua:

Eskabidea oinarri hauetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Posta zerbitzuaren bidez.
- Aurrez aurre, Igunean (Informazio bulegoan).

Eskaera erregistro elektronikoaren bidez aurkezten ez bada, eskaerarekin doan dokumentzioa paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko da.